

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 26koa, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua egin du, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera izapidetu behar da.

Lege horren xedapenak betez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak agindu bat eman zuen 2024ko martxoaren 25ean, dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko. Era berean, 2024ko apirilaren 17an, dekretu-proiektuaren testua aldeztatik onartzeko agindua eman zen.

Aipatutako 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin behar dira, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoak zuzenean eragiten badie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, entzunaldia eman eta jendaurrean jartzen da Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua, hilabetez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutako guztiagatik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 8.1.a) artikulua Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzari ematen dion eskuduntzaren arabera, honako hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa. – Entzunaldia ematea eta jendaurrean jartzea Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua, hilabetez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena. – Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Hirugarrena. – Alegazioak modu elektronikoan aurkeztu ahal izango dira <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> helbidean, eta aurrez aurre Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 8. solairua), bai eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan ere, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariari zuzenduta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 26a.

Turismo eta Merkataritzako sailburuordea,  
JESÚS MARÍA GARCÍA DE COS.

(Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu honetan aipatzen diren organoetako titularren ordezkapen-araubidea arautzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera).